

Eta honako hau esan behar du:

«AGINDUA, 2004ko azaroaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa betetzeke uzten duena.»

Debe decir:

«AGINDUA, 2004ko azaroaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa betetzeke uzten duena.»

Bestelako Xedapenak

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

1304

AKORDIOA, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearena, hautagaitzen osakerari dago-kionez emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-Batzordeak, hil honetako 16an, hautagaien zerrendetan %50 emakumeak izateaz gain ordezkoen zerrendetan kopuru berberari eutsi behar zaion berariaz erantzuteko Alderdi Popularreko ordezkari nagusiak aurkeztutako idazkiari dagokionez, honako erabaki hau hartu du:

Hauteskunde-Batzordearen iritziz, Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 50. artikuluko 4. paragrafoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 17ko 4/2005 Legeak emandako idazkerari jarraituz, zerrendetan %50 emakumeak izango direla esaten duenean, zerrenda guztiari buruz ari da, eta, ondorioz, titular eta ordezkariei buruz. Kontzepzio horretatik, zerrendek "continuum" bat osatzen dutela pentsatzen du Batzordeak, eta ordezkoek 25. titulararekin batera 6 izeneko tarte berri bat osatzen dutela gehienez (hautagai-zerrenda bakotzean sartutako ordezkoen kopuruaren arabera); eta arte horri, aurreko tarteei bezala, %50eko kuota hori aplikatu behar zaio.

Idazkia aurkeztu duen ordezkari nagusi Barrio Barroja jaunari eta Lurralte Historikoko hauteskunde-batzordeei igorriko zaie ebazpen hau, horren berri izan dezaten. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legeko 37.1 artikuluan xedatutakoaren indarrez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da erabaki hau.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 17a.

Idazkaria,
EDUARDO MANCISIDOR ARTARAZ.

Otras Disposiciones

JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

1304

ACUERDO de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sobre la igualdad de hombres y mujeres en la composición de las candidaturas.

La Junta Electoral de la Comunidad Autónomo, en su reunión celebrada el día 16 de los corrientes, y en relación con el escrito del representante general del Partido Popular interesando expresa respuesta sobre si además de la lista de candidatos los suplentes deben estar integrados por al menos un 50% de mujeres, ha adoptado el siguiente Acuerdo:

La Junta Electoral considera que el apartado 4 del artículo 50 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, según la redacción dada por la Ley 4/2005, de 17 de febrero, para la igualdad de hombres y mujeres, al señalar que las candidaturas deberán estar integradas por al menos un 50% de mujeres, está refiriéndose al conjunto de la lista, y, por consiguiente, tanto a los titulares como a los suplentes. Desde esta concepción, la Junta considera que las listas forman un «continuum» y que los suplentes vienen a conformar junto con el titular número 25 un nuevo tramo de 6 nombres (como máximo, dependiendo del número de suplentes incluidos por cada candidatura) al que, al igual que a los anteriores tramos, debe aplicarse la mencionada cuota del 50%.

La presente resolución se remitirá al representante general que la ha formulado, Sr. Barrio Barroja, y a los Juntas Electorales de Territorio Histórico para su conocimiento. En virtud de lo dispuesto en el artículo 37.1 de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco se ordena la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 2005.

El Secretario,
EDUARDO MANCISIDOR ARTARAZ.